

## Gizarte Ekimeneko ikastetxeak

**ELA, STEILAS, CCOO eta LAB sindikatuok, langileen eskaerek erantzunik izan ezean, jarraikotasuna izan dezakeen hilabeteko greba deitzen dugu datorren Azaroak 7tik Abenduak 5era bitarte**

**Patronal zein hezkuntza sailaren arduragabekeria eta inobilismoak greba dinamika indartu beste biderik ez digu utzi, azken greba egunetik 5 hilabete igaro diren arren, ez patronalaren ez eta hezkuntza sailaren aldetik ere inolako mugimendurik ez baita egon**

Sektore honetako langileok 10 urte daramatzagu Lan Hitzarmena berri gabe. 2017ko Azaroan, KE eta AICE-IZEA patronalen jarrera hertsia mahaitik altxatu beste biderik utzi ez zigutenetik, mobilizazio ugari gauzatu ditugu, hainbat elkarretaratze, eta manifestazio, hainbat kanpaina eta ekintza, eta, besteak beste, langileen babes zabala izan duten 27 greba egun 2 ikasturtetan sakabanaturik. Gure mobilizazio egutegiak langileen aldarrikapenei erantzungo dieten proposamenak landu eta ekartzeko beta eman du, eta sindikatuok adostasunak erdiesteko jarrera eta asmo garbia azaldu eta saiakerak egin ditugu etengabe. Deitzen gaituzten bilera guztietara joaten gara, geuk deitzen ditugunetara deituak ez etorri arren, akordioak lortzeko giltzarriak non dauden zehaztasun osoz adierazi dugu, negoziatio saiakeretan zintzotasunez aritu gara, gure eskaerak erabat neurtuak dira, eta malgutasuna erakusten ari gara gure planteamenduetan.

Tamalez ordea, langileen eskaerei erantzun eta gatazkari irtenbidea emateko ardura zuzena eta aukera dutenak, sektoreko patronalak, ez dira dagokien arduraz jokutzen ari. Eta Hezkuntza saila, hezkuntza sistemaren arduradun den heinean, ere ez.

Patronalak behin eta berriro adierazi arren negoziatzeko borondate duela, borondate hori ez da bere proposamenetan ageri, ez eta izaten ari den jokaeretan ere. Besteak beste, alde biko bileretan langileen eskaerei gehiago gerturaten zaizkien planteamenduak egitera iritsi bada ere, ondoren atzera bota ditu; ustez diskretoak izaten ari ziren elkarriketak publiko egin ditu hausturak eta nahasmena sortu eta mobilizazioa desaktibatze asmoz, edukiz hutsalak eta errepikakorrak izan diren negoziatzaileak deituriko mahaiak deitu ditu etabar luze bat.

Hezkuntza sailaren rola berriz, bere burua zurriztearena izaten ari da, gatazka bideratzeko eskuhartzeren bat izaten ari delako itxura egitea, baina gatazkaren irtenbidean benetan inplikatu gabe. Honen adierazgarri, sindikatuokin izandako alde biko bilerak geure eskariz izan direla ia beti, gatazka oso aurreratua egon denean soilik eta hezkuntza sailak erabakitako edukietara mugatuak; baita sindikatuok, patronalei eta hezkuntza sailari LHK an egindako bi bilera deialdien aurrean biak ekiditeko moduak bilatu dituela ere. (lehenengoan patronalaren ez agertzeko erabakiaren atzean ezkutatu eta bigarrenengoan gure bilera kontraprogramatu eta eduki gabeko bilera batera deituz sindikatuok aurreko egunerako). Gatazka hau bideratzeko "Enplegua mantendu eta irakasle-plantilak zaharberritze aldera" luzatutako proposamen-akordioak hutsune nabariak ditu eta ez du langileen birkokapena inondik inora bermatzen.

Testuinguru honetan, patronalaren eta hezkuntza sailaren aldetik mugimenduak eta proposamenetan aurrerapusoak ikusi baditugu greba eta mobilizazio dinamika indartu dugun heinean izan da soilik. Patronalak grebaren "mehatxupear" negoziatzeko erreserba adierazi ditu, baina oraingo honetan ere, pasa den ikasturteko azken greba egunetik ( maiatzak 9) **5 hilabete igaro dira**, eta ikasturtea hasi denetik ez dute inolako aurrerapauso eta mugimendurik egin.

Patronalaren aldetik inolako berririk ez daukagu. Ekainak 13an izan genuen mahai negoziatzaile deiturikoetan azkena, bertan maiatzeko greba egunen aurretik ezaguna zen proposamenarekiko inolako aurrerapausorik ez zuen aurkeztu patronalak, eta horrela darrai egoerak, uztailean zehar beste mahai negoziatzaile bat deituko zuela esan arren patronalak.

Hezkuntza sailak Iraila hasieran, eta eragin errealik gabeko beste propaganda ekintza soil batean, publikoki adierazi du ikasturte honetarako itunpeko sarerako aurreikusten duten gastu aurreikuspenak gatazka bideratzen laguntzea espero duela. Sindikatuok galdetu behar izan diogu Hezkuntza sailari honen inguruan, ez baita gurekiko inolako kontakturik egin sailaren aldetik; eta behin galdetuta, propaganda hutsa izan dela berretsi dugu, ez baitago inolako diru sarrera gehigarririk aurreikusita.

Hau guztia horrela izanik, beste behin ere greba dinamika indartu beste biderik ez digute uzten. Beraz, **ELA, STEILAS, CCOO eta LAB sindikatuok**, langileen eskaerek erantzunik izan ezean, **datarren Azaroak 7 eta Abenduak 5 bitarte jarraikotasuna izan dezakeen hilabeteko greba barneratzen duen mobilizazio egutegia** abian jartzea adostu dugu.

Familien ardura ulertuz, sindikatuok beraiekin biltzeko prestutasuna adierazi nahi dugu, eta aldi berean **adostasunetara iristeko gure borondate eta aldartea berretsi**.

Horrela, beste behin ere, **patronalei eta hezkuntza sailari bakoitzari dagozkion ardurak bere gain hartu eta gatazka bideratzeko neurriak har ditzatela galdegiten diegu**, langileen eskaerei erantzun egoki bat emango dioten planteamendu eta proposamenak eginez.

Euskal Herria, 2019ko Urriak 15ean.



## Centros de enseñanza de Iniciativa Social

**Los sindicatos ELA, STEILAS, CCOO y LAB convocamos un mes de huelga, desde el 7 de noviembre hasta el 5 de diciembre, con solución de continuidad en caso de que las demandas de las/os trabajadoras/es sigan sin respuesta**

**La irresponsabilidad y el inmovilismo de patronal y Dpto. de Educación no nos dejan otra alternativa que intensificar la dinámica de huelgas, ya que a pesar de haber transcurrido 5 meses desde el último día de huelga no ha habido ningún movimiento ni por parte de la patronal, ni del Dpto.**

Las/os trabajadoras/es este sector llevamos 10 años sin renovar nuestro convenio. Desde que en noviembre de 2017 KE y AICE-IZEA no nos dejaran otra opción más que levantarnos de la mesa de negociación a causa de su cerrazón, hemos promovido numerosas movilizaciones, concentraciones, manifestaciones, campañas y acciones; entre otros, 27 días de huelga, repartidos en los 2 últimos cursos, que han contado con un amplio seguimiento por parte de las trabajadoras y trabajadores. Nuestro calendario de movilizaciones ha dado opción y tiempo a las patronales para elaborar y presentar propuestas que den una respuesta seria a las reivindicaciones de las/os trabajadores/as y pongan fin a este conflicto, y los sindicatos hemos mostrado, tanto en nuestros planteamientos como con nuestras actuaciones voluntad de llegar a consensos y hemos realizado varios intentos con ese fin. Acudimos a todas las reuniones a las que somos convocados, aunque no nos veamos correspondidos con su asistencia a las que nosotros convocamos. Hemos manifestado con toda claridad cuales son las claves para alcanzar acuerdos, hemos actuado con honestidad en todas las tentativas de negociación, nuestras demandas son muy básicas y moderadas, y estamos siendo flexibles en nuestros planteamientos.

Sin embargo, lamentablemente, los que tienen la responsabilidad directa y la posibilidad de atender las demandas del personal y de buscar una salida al conflicto, las patronales del sector, no están actuando con la responsabilidad que les corresponde. Y el Dpto de Educación, como máximo responsable de nuestro sistema educativo tampoco.

A pesar de que las patronales repiten que tienen voluntad de negociación, esa voluntad no se refleja ni en sus propuestas ni en sus actuaciones. Así, aunque ha llegado a hacer planteamientos que se acercaban más a las demandas de las/os trabajadoras/es en reuniones bilaterales con cada sindicato, después los ha retirado, ha hecho públicas unas conversaciones supuestamente discretas con el objetivo de crear fricciones y confusión y tratar de desactivar la movilización, ha convocado reuniones de mesas de negociación en las que no ha presentado propuestas o se ha limitado a reiterar las previamente conocidas y así un largo etcétera.

El Dpto de Educación por su parte sigue dirigiendo sus actuaciones a lavarse las manos, y a aparentar una participación en la resolución del conflicto que no es real. Así, es significativo que las reuniones bilaterales mantenidas con los sindicatos hayan sido a petición nuestra, y cuando el conflicto ha llegado a una fase muy avanzada, así como que se hayan limitado a las cuestiones que el Departamento de Educación ha decidido tratar. También que ante las convocatorias sindicales a patronales y Dto. de Educación para dos reuniones en el CRL, el Departamento haya buscado la forma de evitar acudir (en la primera reunión escudándose en la negativa a acudir de las patronales y en la segunda contraprogramando la reunión y convocándonos a los sindicatos a una reunión sin contenidos para la víspera). La única intervención del Departamento para la

resolución del conflicto consistente en la propuesta de acuerdo para “el mantenimiento del empleo y el rejuvenecimiento de las plantillas docentes” tiene graves carencias y no garantiza en absoluto la recolocación.

En este contexto, solo ha habido avances en las propuestas y movimientos por parte de patronales y Dto. de Educación a medida que hemos intensificado la dinámica de huelgas y movilizaciones. La patronal ha mostrado sus reticencias para negociar bajo la "amenaza" de las huelgas; pero, lo cierto es que también en esta ocasión, a pesar de que **han transcurrido 5 meses desde el último día de huelga (9 de mayo)**, no ha habido ningún avance, ni movimiento, por parte de las patronales, ni por parte del Dto. de Educación.

No tenemos noticias de la patronal. El 13 de junio tuvimos la última reunión de mesa negociadora, en la que la patronal no mostró ningún avance respecto de la propuesta anterior a los días de huelga de mayo. Y, desde entonces, la situación se mantiene igual, a pesar de que la patronal dijese que iba a convocar una mesa en el mes de julio.

El Dto. de Educación, a principios de setiembre, haciendo de nuevo un ejercicio de propaganda sin efectos reales, anunció que esperaba que las previsiones de gasto para la red concertada en el presente curso contribuirán a solucionar el conflicto. Hemos sido los sindicatos los que hemos tenido que preguntar sobre el significado de estas declaraciones, ya que desde el Dpto no nos han trasladado ninguna información al respecto, y una vez más hemos confirmado que se trata de un mero acto propagandístico, y que no está prevista ninguna partida adicional.

Así las cosas, no nos dejan otra alternativa que intensificar la dinámica de huelgas. Por tanto, **los sindicatos ELA, STEILAS, CCOO y LAB**, hemos acordado poner en marcha un calendario de movilizaciones que incluye un mes de huelga, desde el 7 de noviembre hasta el 5 de diciembre, con solución de continuidad en caso de que las demandas de las/os trabajadoras/es sigan sin respuesta.

Entendiendo la preocupación de las familias, los sindicatos queremos mostrar nuestra disposición para reunirnos con ellas, y nos reafirmamos en **nuestra voluntad de llegar a consensos**.

**Una vez más exigimos a las patronales y al Departamento de Educación que asuman sus respectivas responsabilidades y que tomen las medidas conducentes a la resolución del conflicto**, haciendo planteamientos y propuestas que satisfagan las demandas del personal.

Euskal Herria, 15 de octubre de 2019.



